

Nélida Zaitegi, lehendakaria
Xabier Aizpurua
Josean Bueno
Juan Carlos Jauregui
M^a Teresa Ojanguren
Mikel Pagola
Begoña Pedrosa
Ismael Redondo
Eva Blanco, Idazkari teknikoa

IRIZPENA 18/12

Euskadiko Eskola Kontseiluaren Batzorde Iraunkorraren 2018ko irailaren 20ko bilkurara bazterrean aipatutako kideak joan ziren. Batzorde horrek adostasunez eman du ondoko irizpena: **Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren titularitatekoak diren ikastetxeak eraldatuz Lanbide Heziketako ikastetxe bateratuak sortzen dituen Dekretu proiektuari buruzkoa.**

I. AURREKARIAK

Kualifikazioei eta Lanbide Heziketari buruzko ekainaren 19ko 5/2002 Lege Organikoak, lanbide-heziketako ikastetxe integratuen sorrera erabazten die, 11. artikuluan xedatzen du Gobernuak ezarriko dituela ikastetxe horiek bete beharreko oinarriko baldintzak, eta horiek sortzea, baimentzea, homologatzea eta kudeatzea Administrazioen egitekoak izango direla haien eskumen-eremuan.

Abenduaren 23ko 1558/2005 Errege Dekretuak lanbide-heziketako ikastetxe integratuentzako oinarriko baldintzak arautzen ditu

Bizialdi Osoko Ikaskuntzari buruzko urriaren 10eko 1/2013 Legeak II. Kapituluaren jasotzen du lanbide-heziketako euskal sistema integratua.

46/2014 Dekretuak arautzen ditu Euskadiko lanbide heziketako ikastetxe bateratuak bere 8.1 artikuluan, non zehazten baitu ikastetxe horiek berriak izan daitezkeela eta baita ere lehendik daudenak eraldatuz, batuz edo banatuz sortu direnak.

II. EDUKIA

Dekretuak lau artikulua, bi xedapen gehigarri eta azken xedapen bat ditu.

Lehen artikulua **Izarratzen Lanbide Heziketa** ikastetxe integratu bihurtzen da, 2018-19 kurtsotik aurrera.

Bigarren artikulua aipatutako ikastetxea titulartasun publikoko lanbide-heziketako ikastetxe integratuen sarea sartzen du.

Hirugarren artikulua Prestakuntza-eskaintzari buruzkoa da eta laugarrenak ikastetxe hauetako langileei buruzkoa.

Lehen xedapen gehigarriak ezartzen du eraldatutako ikastetxeetako zuzendariak kargutik kenduko direla eta bigarrenak Batzorde Sozial bat sortuko dela.

III. BALORAZIOA ETA PROPOSAMENAK

Euskadiko Eskola Kontseiluak, urtarrilaren 15eko Batzorde Iraunkorrean, 15/01 irizpena onartu zuen, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren titularitatekoak diren ikastetxeak eraldatuz Lanbide Heziketako ikastetxe bateratuak sortzen dituen Dekretu proiektuari buruzkoa. Irizpenean proposatutako ekarpenak 85/2015 Dekretuaren azken idazkeran sartu ziren.

Ondoren, Kontseiluak beste dekretu proiektu bati buruzkoa irizpena onartu zuen, Hezkuntza sailaren titularitatekoak diren lau ikastetxeak eraldatuz Lanbide Heziketako ikastetxe bateratuak sortzen. (247/2016 Dekretua) eta berriki 18/08 Irizpena eman du, Andra Mari BHI buruzkoa, oraindik argitaratu ez dena.

Euskadiko Eskola Kontseiluak ez dauka oztoporik dekretu proiektuak planteatzen duen bezala ikastetxe bat eraldatzeko, betiere 46/2014 dekretuko eskakizunak betetzen badituzte ikastetxe bateratu izateko.

Irizpen hau zure erabakiaren menpean geratzen da.

Bilbo, 2018ko irailaren 20an

IDAZKARI TEKNIKOA

Sin.: Eva Blanco Ochoa

Ikus-Onetsia

LEHENDAKARIA

Sin.: Nélida Zaitegi de Miguel

HEZKUNTZA SAILBURUA